

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	INGURUNE NATURALEKO JOAN-ETORRIAK, EGONALDIK, ETA SEGURTASUNA, ETA LEKUKO BERTAKO ORIENTAZIOA (zeharkakoa)	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0297		
Lanbide-arloa	KIROL-JARDUERA FISIKOAK		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Bizikletaz egiteko ibilbideetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Bizikletak mantentzea eta gidatzea	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Bizikleten mantentze-lanak egitea, eta haiek konpontzea eta lekualdatzea	Iraupena	30
	Bizikletak askotariko lurretan gidatzea		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0508_2 Askotariko lurretan (gehenez erdi-mailako mendiak) bizikletak eraginkor eta seguru gidatzea eta bizikleten mantentze-lan operatiboak egitea gaitasun-ataleko LB4 eta LB6 lanbide-buruzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eremu jakin bateko ezaugarri geografiko, geologiko, sozioekonomiko eta biologikoen ezaugarriak aztertzea, eta ingurumen-babesari eta -hezkuntzari lotutako jarduerak lantzea eta hedatzea.

EI1.1 Eremu bat zehaztu, eta haren geologia- eta paisaia-ezaugarriak deskribatzea.

EI1.2 Eremu jakin bateko floraren eta faunaren ezaugarriak azaltzea, eta landare- eta animalia-espezie adierazgarriak non aurkitu daitezkeen adieraztea.

EI1.3 Igarobideak eta inguruneari behatzeko guneak egokitzeko erabiltzen diren metodoen ezaugarriak azaltzea.

EI1.4 Natura-ibilbideak edo bidezidor ekologikoak ezartzeko informazio-materiala lantzea, eta, horretarako, ibilbideen krokisak eta gune interesgarrien deskribapen-fitxak egitea.

EI1.5 Eremu jakin bateko alderdi sozialak eta ekonomikoak deskribatzea, eta sektore turistikoak landa-garapenean duen eragina azaltzea; inguruko kultura-adierazpenak eta artisautza- eta elikadura-produktuak identifikatzea, eta nekazaritza-turismo ekologikoarekin lotzea.

EI1.6 Bizikletaz egiteko ibilbidea aurkezten duen kasu praktiko bat —ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkana— abiapuntu izanik:

- Eremu interesgarriak zehaztea.
- Eremu interesgarri bakoitzeko kultura, botanika, paisaia, biologia eta geologiari buruzko informazioa lantzea.

EI1.7 Legeetan bildu ez diren hainbat jarduerak egiteko baldintzak eta haien ingurumen-inpaktua aztertzea.

EI1.8 Naturarekiko errespetuan sensibilizatze eta ingurumen-inpaktua txikiagotzeko ekintza pertsonalak proposatzea.

EI1.9 Taldearen, ibilbidearen eta ingurunearen ezaugarriak ezartzen dituen jarduerak kasu batean oinarrituta, honako ekintza hauek egitea:

- Ingurumenari dagokionez, jarduerak izan ditzakeen arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek saihesteko neurriak proposatzea.
- Erabiltzaileek ingurumenarekiko errespetuari dagokionez bete beharreko portaera-jarraitibideak lantzea.
- Portaera-arau horiek betetzeko behar diren baliabide materialak zerrendatzea.
- Ingurunea zaintzeko eta babesteko arauak buruzko informazio-materialak lantzea.

A2: Ingurune naturalean, interesgarriak izan daitezkeen gorabehera geologikoak eta ekosistemak ezagutzeko.

EI2.1 Mendiko ekosistema baten ereduak landaredia identifikatzea, eta haren erabilera eta arriskuak deskribatzea.

EI2.2 Animalia-espezierik adierazgarrienak eta haien kokapena identifikatzea, haiek zuzenean edo haien aztarnak ikusita, eta zer arrisku dakartzaten deskribatzea.

EI2.3 Egoki tipifikatutako kasu praktiko batean oinarrituta, ura non eta nola hartu identifikatzea.

A3: Bizikletaz egiteko ibilbideak lantzea.

EI3.1 Pendizak eta luzetarako distantziak kalkulatzeko, hainbat eskalatako mapak erabiliz.

EI3.2 Mapa batean, ibilbidearen ezaugarriak identifikatzea.

EI3.3 Hainbat mapa alderatzea eta haien sinbologia interpretatzea.

EI3.4 Bizikletaz egiteko ibilbide baten zailtasun- eta arrisku-elementuak identifikatzea eta deskribatzea.

EI3.5 Taula bat egitea, ibilbidearen tartean dauden zailtasun- eta arrisku-elementuak segurtasunez gainditzeko behar den iaiotasun teknikoaren mailari lotuta.

EI3.6 Errealitatearen analisiaren eta diagnostikoaren ondorioak eta egiazko ibilbide bateko eremuaren ezaugarri buruzko informazioa biltzen dituen kasu praktiko bat —ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkana— abiapuntu izanik, bizikletaz egin beharreko ibilbidea egitea, alderdi hauek ezarriz:

- Ibilbidea garatzeko behar diren baliabideak.
- Ibilbidearen hasiera eta amaiera.
- Ibilbidearen iraupena.
- Taldea elkartzeko ezar litezkeen guneak.
- Beharrezkoak diren atsedenguneak.
- Ordezko ibilbideak.
- Ibilbidean zehar egiteko jarduerak.
- Ebaluazioko adierazleak eta tresnak, baita haiek erabiltzeko unea ere.

EI3.7 Erabiltzaileen ezaugarriak eta eskuragarri dauden baliabideak ezartzen eta egiazko ibilbide baten eremua zehazten duen kasu bat —ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkana— abiapuntu izanik, ibilbidea lantzea, hala nola honako alderdi hauek adierazita:

- Zailtasuneko tarteen hasiera eta amaiera.
- Behe- eta erdi-mailako mendietako arrisku objektiboak dituzten tarteen hasiera eta amaiera.
- Tartearen segurtasunez gainditzeko izan litezkeen ordezko ibilbideak.
- Taldea elkartzeko ezar litezkeen guneak.
- Ordezko planak, izan litezkeen gorabeherak gertatzen direnerako.
- Gaua igarotzeko balizko puntuak.
- Itzulerarik gabeko puntuak.
- Gidaren komunikazio-aparatuak dituzten estaldura-eremuak.
- Orientatzeko erreferentzia-punturik adierazgarrienak, ibilbidean zehar izango diren altuera-kotak, eta ordezko tarteak.
- Jan-edanak hornitzeko izan litezkeen puntuak.

A4: Tresnak, mapak eta zantzu naturalak erabiltzea mendian era guztietako giro-kondizioetan orientatzeko.

EI4.1 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan orientazioko kasu praktiko batean, honako ekintza hauek egitea, mapa topografikoa soilik erabiliz:

- Mapa egoki orientatzea, inguruko lur naturala erreferentziatzat hartuta.
- Mapan, ingurunean ikus daitezkeen natura-elementurik adierazgarrienak identifikatzea, hala nola ibaiak, haitz-ebakiak, basoak, baso-pistak, goi-tentsioko bideak, presa artifizialak, errepideak eta herririkak.
- Muino agerikoenak ezagutzea.

EI4.2 Mapan, ibilbide jakin bateko distantziak eta denbora-tarteak nola kalkulatu diren azaltzea.

EI4.3 Zirkulu graduatu mugikorra duen iparrorrazaren elementuak eta funtzionatzeko moduak deskribatzea.

EI4.4 Iparorratzaren deklinazioaren eta inklinazioaren arteko aldeak nabarmentzea, latitudeak eta altitudeak haietan zer eragin duten azaltzea, eta deklinazioa kalkulatzeko, urtearen arabera.

EI4.5 Iparorratzaren funtzionamendu onerako kaltegarriak diren materialak eta elementuak aipatzea.

EI4.6 Orientazio-teknika hauek deskribatzea:

- Nahita egiten diren akatsak.
- Sestra-kurbari jarraitzea.
- Alderantzizko norabidea.

EI4.7 GPSaren funtzionamendua deskribatzea.

EI4.8 GPSaren hasieraketa deskribatzea.

EI4.9 GPSrako koordinatuak hartzeko prozesua deskribatzea, eta koordinatuak sartzea, ibilbidearen pantaila bistaratu.

EI4.10 Altimetroaren funtzionamendua eta altuerarekin eta behe-presio eta goi-presio atmosferikoko klima-kondizioekin dagoen lotura deskribatzea.

EI4.11 Orientazio-lasterketetako baliza estandarrez zedarritzatutako orientazio-zirkuitua ezarria duen kasu praktiko batean oinarrituta:

- Ibilbidea egitea, baliza bakoitza aurkituta.
- Orientatzeko, zirkulu graduatu mugikor gardeneko iparrorratza eta inguruko mapa kartografikoa erabiltzea.

EI4.12 Mapa, iparrorratza, GPSa eta altimetroa erabiliz egiten den orientazioko hainbat kasu praktikotan oinarrituta, ibilbide osoa egitea, eta:

- Norabideak eta azimutak kalkulatzeko.
- Mapan irudikatuta dauden gorabehera geologikoak eta gizakiak eraikitako egiturak identifikatzea.
- Mapan puntuak kokatzea, triangulazio-teknikak erabiliz.
- Dagokion ibilbidean gaudela berrestea, alderantzizko bidearen teknika aplikatuz.
- Ingurune naturalean puntuak identifikatzea, mapan bideak hartuta.
- Ibilbideko erreferentzia-puntuen koordinatuak kalkulatzeko, GPSan sartzeko.
- Egindako ibilbidea GPStik berreskuratzea.

Edukiak

1. Ingurune naturala aztertzea, ibilbideak diseinatuz

- Hainbat eremutako geografia, klima, flora eta fauna.
- Eskualdeko eta lurraldeko eremu interesgarriak.
- Mendiko ingurunea eta haren karakterizazio ekologikoa.
- Ingurune naturaleko turismoa: kirol-turismoa, ekoturismoa, nekazaritza-turismoa eta landa-turismoa.
- Hainbat ingurutako alderdi antropologiko eta soziokultural autoktonoak.
- Bizikletaz egiteko ibilbideetan gidatzeko kirol-jardueren ingurumen-inpaktua:
 - Legeetan bildu ez diren jarduerak eta haien ingurumen-inpaktua.
 - Ingurumen-inpaktua txikiagotzeko banako eta taldeko ekintzak.
- Ingurumen-hezkuntza: Helburuak, jarduerak, ingurumen-hezkuntzarako baliabideak, ingurumenarekiko jarrerak sustatzea, eta ingurumen-hezkuntzaren metodologia.

2. Ingurune naturala ezagutzea ibilbideak egitean:

- Mendi-sistemen geomorfologia: haran-motak.
- Ekosistema-motak: landaredia, izan litezkeen erabilerak eta arriskuak identifikatzea.
- Landare- eta animalia-espezieen zuzeneko behaketako teknikak.
- Ura eta elikagaiak lortzeko prozedurak.

3. Kartografiaren eta orientazioaren oinarri orokorrak aplikatzea

- Mapak maneiatzea:
 - Ibilbide baten pendizak, distantziak eta denbora-tarteak kalkulatzeko.
 - Ibilbidearen ezaugarriak: hasiera, iraupena eta amaiera; taldea elkartzeko guneak; atsedenguneak; behar diren baliabideak eta ibilbidean zehar egiteko jarduerak; eta ordeko ibilbideak.
 - Ibilbidearen ebaluazioa: tresnak eta irizpideak.
 - Sinbologia interpretatzea.
- Ibilbidearen balorazio teknika: zailtasuna eta arriskuak dituzten tarteak.
 - Ibilbidearen zailtasun- eta arrisku-elementuak.
 - Tarte zailak eta arriskutsuak segurtasunez gainditzea.
 - Tarte arriskutsuak gainditzeko ordeko ibilbideak.
 - Ordeko planak, izan litezkeen gorabeherak gertatzen direnerako.
 - Itzulerarik gabeko puntuak. Taldea elkartzeko izan litezkeen guneak, gaua igarotzeko tokiak, jan-edanak hornitzeko guneak, eta komunikazio-aparatuetarako estaldura-eremuak.
- Planoak erabiltzea:
 - Plano-motak eta hainbat motatako planoak interpretatzea.
 - Tresnak erabiltzea.
 - Orientaziorako adierazgarriak diren erreferentzia-puntuak.
 - Distantzien eta altueren oinarritzko kalkuluak.

4. Tresnen bidez orientatzea

- Ibilbideen diseinuari aplikatutako orientazioa:
 - Baliabideak eta tresnak; mapa eta iparrorratz bidezko orientazioa.
 - Baliabide naturalak, zantzuen bidezko orientazioa.
 - Orientatzeko elementu naturalak: **landaredia**.
- Iparrorratza:
 - Ezaugarriak, funtzionamendua, motak eta mugak.
 - Latitudearen, longitudearen, deklinazioaren eta inklinazioaren eragina.
 - Iparrorratzaren funtzionamenduari kalte egiten dioten materialak eta elementuak.
 - Lur-nabigazioa iparrorratza eta mapa erabiliz.
- GPSa:
 - Ezaugarriak, funtzionamendua, motak eta mugak.
 - GPSaren hasieraketa.
 - GPSarentzako koordenatuak: GPSko datuak hartzea eta datuak GPSan sartzea.
- Orientatzen laguntzen duten aparatu osagarriak: altimetroa, podometroa, klinometroa eta kurbimetroa.
- Orientatzeko teknikak: azaleko orientazioa eta orientazio zehatza.
- Ikuspena txikia denean orientatzeko teknikak: nahita egiten diren akatsak, sestra-kurbari jarraitzea, alderantzizko norabidea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.

- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Bizikletaz egiteko ibilbideetako gida.